



## Ereñozarko San Migel basiliza (Ereño)

Santimamiñeko kobaren gainean, Gernikako itsasadarreko leku ederra, haren bokalea eta kostaldeko tarte zabala ikusten diren mendiska malkartsuaren gailurrean, Ereñozarko San Migel basiliza dago.

Landa-eraikina da, planta angeluzuzeneko, harri-hormak eta izkinetan harri landuak dituena. Beraren gainaldea bi aldeko isurialdekoa da. Hark atari zabala du, mendebaldera eta iparmendebaldera begirakoa. Barrurantz, tenpluaren oinetan zabalik dagoen burudun atetik sartzen da bertara. Neurri txikiko eta lurrezko zoruko leku horretan, hareharri landua dago, zerra-hortzetako orlax inguraturiko otoizgile zakarraren irudiaz apaindua. Haren estetika arkaikoa da, baina hark Erdi Arokoa dirudi. Beraren ondoan, kanpo-planta trapezoidal eta barru-bao antropomorfoko hilobi monolitikoa dago, era berean. Beraren burua gorputzetik berezita dago, hura zabalduz. Zabalte horrek sorbalda zuzen eta simetrikoak adierazten ditu. Hilobi hori X eta XII. mende bitartekoa izan daiteke. Hori ez dateke inguruko hilobi bakarra. Izan ere, herri tradizioaren arabera, basilizaren inguruetan hilobiak zeuden. Hala ere, ez da horren gaineko ikerketa arkeologikorik egin.

Zantzuok gorabehera, gutxi dakigu haren jatorriez. J.R. Iturriza XVIII. mendearen bukaerako historialariaren iritziz, basiliza antzina Ereñoeko parroquia izan zen, nekazari zentsuarioek edo Bizkaiko Jaunen menpeko baserritarrek X. mendean eraikia. Tenpluaren izenari jarraiki, oraintsuago sortu zatekeen hura. Izan ere, San Migelenganako gurtzapena Antso III.a Nagusiak lurraldea antolatzeke ekindako politikarengatik hedatu eta indarrez errotu zatekeen Bizkaian. Antso III.a Nagusiak 1017an, Aralarko monasterioa sortzean, arkanjelua Iruñeko monarkiaren babesle bihurtu zuen.


Bizkaian, Europa osoan bezala, 1000 inguruan eliza asko eraiki ziren, inguruko biztanleei erlijio-laguntza emateaz gain hura baserritar erkidegoetan kohesionatzeko balio izan zutenak. Elizok biztangunearen muturrean eraiki ziren sarri askotan, beti ez baina. Esate baterako, San Migel haizeak jasaten zituen lekuan eraiki zen, natur babesik gabe. Leku hori ez zatekeen inoiz izan herriska finkatzeko oso erakargarria, mendiskaren azalera urria kontutan harturik bereziki. Baina, auzotarren santuarenganako debozioa dela eta, pentsa dezakegun ezen, Erdi Aroaren bukaeran Ereño, Nabarnizko eta Arteagako elizateak sendotu baino lehen, tenplua beraren oinetan hedaturik zeuden biztanleentzako erreferente garrantzitsua izan zela, abeltzaintza-oinarriko gizarteetan ohikoa den bezala. Bertan mendiak bere hegaletako biztanleak lotzen zituen.

Erljio-erabilera ez zen Ereñozarko mendiskaren erabilera bakarra izan. Hura kostaren gainean estrategikoki kokatuta zegoen eta horrek hura gotortu eta defentsa-talaia bihurtzea erraztu zuen. Berau hargin-lana zen, nonbait zurezko itxituraz koroatua. Haren zimenduak, mendiaren goiko zelaiunearen ingurukoak, ikus daitezke egun ere. Egin-eginean, Alfontso XI.aren Kronikaren arabera, 1334an Bizkaiko zenbait jaunek, Juan Nuñez Lara jauna buru zutelarik, *Sant Miguel d'Erenchoko* gazteluan hilabete luzean hartu zuten aterpe, Gaztelako erregearen setiotik babesteko. Baina aurreko testigantzak daude, Alfontso I. Borrokariaren erregealdian (1104-1134) Toledon egindako txanpon bat gotorlekuak betetako plataformaren hegomendebaldeko angeluan aurkitzetik ondorioztatzen den bezala. Haren aurrealdean gizonezko busto zakar marrastua dago, *ANFUS REX* hitzak dituena.

Atzealdean gurutzea dago, lehenengo eta laugarren kuarteletan izarrak dituena. Bertan *TOLETA* hitza dago. 1409an, bandoen borroka bortitzaren testuinguruan, hura hondatu zen eta zutik basiliza bakarrik geratu zen. Basiliza bere historian zehar hainbatetan berritu da. 1982an berriz eraiki zuten Ereñozarko San Migelen Lagunen ermandadeko kideek. Gainera, *auzolan* araubidea berreskuratu zen, horrelako landa-eraikuntzetariko asko zaharberritzeko betidanik erabilia.

Ereñozarko iragan lanbrotzuan kondaira asko daude, haren interesa areagotzen dutenak. Batzuk deabruaren gaineko San Migelen garaipenarekin loturik daude. Horrela, basilizara sartzeko bidearen ondoko haitzetan ikusten diren arrakalak arkanjeluak hegian behera presaka beraren oinaren petik ihes egiten zuen gaiztoari behin jarraitu behar izan zionean egindako oinatz-tzat hartu dira. Beste batzuek teilatutik erortzen ziren urei larruzalaren gaitzak sendatzeko propietateak eratziki dizkiete. Azkenean, beste batzuek toki horretako eguraldi txarra basiliza bisitatu gabe hilda bertara erromes joan behar dutenek sentituko zuten beharzagatik azaltzen dute. Haien presentzia inguruko gauean ibili ohi diren hurakan moduko haizeen itxuran agertzen da.

**Testua:** Iñaki García Camino.



### Ereñozarko San Migel basiliza

Ereño. (*Ereñozar mendia*).

#### Nola heldu:

Ereño hiri-aldean, basilizarako norabidearen adierazleari jarraitu behar zaio. Bidearen bukaerara heldutakoan, oinez igo behar da harrizko bide maldatsutik.

#### Bisituen ordutegia:

Basiliza jendearentzat itxita egon ohi da.

#### Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(*Gautegiz eta Ereño*)

- Andrabideko eta Ereñoeko harrobiak.

(*Ibarrangelu*)

- San Andres eliza.

(*Kortezubi*)

- Santimamiñeko koba.
- Omako baso pintatua.

(*Arratzu*)

- Gastiburuko santutegia.

(*Nabarniz*)

- Marulezako oppiduma.